



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Biztanleria atzerritarrari eta etxebizitzari buruzko txosten diagnostikoa





Aurkibidea

0.	Aurkezpena	3
1.	Biztanleria atzerritarra EAEn	4
1.1.-	Biztanleria atzerritarra EAEn: bilakaera eta pisu erlatiboa Lurralde Historikoaren arabera	4
1.2	Jatorri atzerritarreko biztanleriaren Eskualde-mapa EAEn 2015	8
2.	Biztanleria atzerritarra eta etxebizitza	9
2.1.	Etxebizitzaren edukitza-erregimena biztanle atzerritarren artean	9
2.2.	Etxebizitzaren baldintzak, instalazioak eta ekipamendua eta jatorri atzerritarreko biztanleen gogobetetasun-maila	11
3.	Biztanleria atzerritarren etxebizitza premiak	12
3.1.-	Biztanleria atzerritarren etxebizitza premiak eta eskaria EAEn	12
4.	Biztanleria atzerritarren BPE eskuratzea eta etxebizitza laguntzak	17
4.1.	BPEren esleipenaren eragina biztanle atzerritarren artean 2015ean	17
4.2.	Etxebizitzan egindako gastuak biztanle atzerritarrengan duen inpaktuaren analisia versus konparatua eta diru-sarrerak. 2008-2012	19
5.	Ondorioak	22



0. Aurkezpena

Biztanle atzerritarren etxebizitzarekiko egoerari zein, biztanleria osoarekin alderatuz, kolektibo horrengan etxebizitza politikak duten eragin- eta estaldura-mailari buruzko ikerketa sintetikoa eskaintzea da txosten horren xedea.

Horretarako, aurreko hamarkadaren bukaerako atzeraldiaren aurreko eta ondorengo urteetan, biztanle atzerritarrek izandako bilakaeraren joera ezberdinari buruzko analisia egin da txostenaren lehenengo kapituluan.

Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta Gizarte Politiketako Saileko Organo Estatistikoak berriki argitaratu duen EAEko Etorikin Atzerritarrei buruzko Inkestaren emaitzetan jartzen du arreta bigarren kapituluak. Biztanle atzerritarrak bere baitan hartzen dituzten euskal familien bizikalitatearen hainbat funtsezko alderdi, eta bereziki etxebizitzarekin lotuta daudenak¹, sakonean aztertzea ahalbidetu dute emaitza horiek.

Biztanle atzerritarren etxebizitza eskariaren analisisian sakontzen du hirugarren kapituluak, bai haren kuantifikazioari eta eskaria osoarekiko tamainari, bai pertsona atzerritar eskatzaileen profilari eta ezaugarritzeari dagokionez.

Laugarren kapituluan, etxebizitza babestuaren esleipenduna izateko kolektibo horrek gainerako biztanleekiko dituen aukerak aztertu dira. Horretarako, kolektibo horren diru-sarrerek eta gastuek duten inpaktua aztertu duen ikerketa berri baten emaitzak hartu dira kontuan.

Azken atalak, egindako analisiaren ondorio eta emaitza nagusiak aurkezten ditu, kapitulu guztien zeharkako ikuspegitik.

¹ Atzerritar jatorriko biztanleak kontzeptua erabiltzen du inkesta horrek (eta kontzeptu horren baitan atzerritar nazionalitatea duten biztanleak daude).

1. Biztanleria atzerritarra EAEn


1.1.- Biztanleria atzerritarra EAEn: bilakaera eta pisu erlatiboa Lurralde Historikoaren arabera

XXI. mendearen lehenengo hamarkadan atzerritar nazionalitatea zuten biztanle kopuruaren hazkunde adierazgarria gertatu zen EAEn. Joera hori atzeraldia eraginez gelditu zen, eta harrezkero 2011tik gaur egunera arte iraun duen beheranzko bidea hasi zen.

Mende horretako hasierako urteetan biztanle atzerritarrek euskal biztanle kopuru osoaren % 1 besterik ez bazuten hartzen ere eta 30.000 pertsona baziren ere, 2011n kopuru hori biderkatu zen lau aldiz, 140.000 pertsonetik gora bilduz eta guztizkoaren % 6,6 hartuz.

2011tik geroztik, biztanle kopuru horren pisu erlatiboaren murrizte-prozesua hasi zen. Horrela, 2011-2015 urte bitartean atzerritar nazionalitateko biztanleriak 40.000 pertsona galdu zituen, 2015ean 107.637 pertsona izanik, hau da, euskal biztanle guztien % 5,0.

EAEn bizi diren biztanle atzerritarren bilakaera. 2002-2015





Iturria: EIN: Espainian bizi diren biztanleak 2015

2011tik geroztik kolektibo horrek jasandako beheranzko joera hobeto ulertzeko, migrazio-saldoen estatistika aztertzea bereziki interesgarria da. 2008an emigrazioa igotzeko eta immigrazioa jaisteko joera argia egiaztatu zen jada, eta, ondorioz, migrazio-saldoa negatiboa izan da azken urteetan.

Halaber, biztanle atzerritarrek haien jatorrizko herrietara itzuli direla egiaztatu da: 2014an EAetik emigratu zuten biztanleen % 82 atzerritar nazionalitateko pertsonak izan ziren.

Emigrazio- eta Immigrazio-fluxuak nazionalitatearen arabera, EAEn 2008-2014




Iturria: EIN. Migrazioen Estatistika

Edozelan ere, adierazi behar da biztanle atzerritarren kopuruaren murrizketa, azken urteetan gertatu den atzerritar jatorriko biztanleen pixkanakako nazionalizazio-prozesuarekin lotzen dela ere. Ildo horretan, Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokia) zabalduko estatistikek 2010etik 2015era bitartean emandako atzerritar jatorriko biztanleen hazkundea erakusten dute (egungo nazionalitatea kontuan hartu gabe): zehazki, 2010ean 167.000 pertsona baziren ere, 2015ean 184.000 pertsona izatera pasatu zen.

Aurreko hamarkadaren bukaeratik geroztik, EAEn erregistratutako atzerritar jatorriko biztanleen murrizte-joera Estatu mailan gertatu da ere, intentsitate-maila txikiagoa izan bada ere. Horrela, 2002-2010 urte bitartean biztanle atzerritarren pisu erlatiboa % 4,2tik % 11,6ra igo bazen ere, 2010etik geroztik beheranzko joera sumatu da, 2015ean biztanle atzerritarren pisu erlatibo hori % 9,6 izan delarik.

EAEn eta Espainian biztanle atzerritarrek duten pisu erlatiboaren bilakaera konparatua 2002-2015





EIN: Espainian bizi diren biztanleak 2015

Lurralde Historikoaren arabera erakusten du Bizkaia eta Araba izan direla azken urteetan biztanle atzerritar kopuruan jaitsiera handiena jasan duten lurraldeak. Bizkaian, 2011tik geroztik, kolektibo hori % 32,1 murriztu bada ere, Araban % 25,9 murriztu da. Gipuzkoan, aldiz, murrizketa hori askoz ere txikiagoa izan da (-% 13).

Horrekin bat etorritik, atzeraldia hasi zenetik biztanle atzerritarren pisu erlatiboak izandako murrizketa agerikoa da hiru lurraldetan. Araban, non 2010ean kolektibo horren garrantzia biztanleriaren % 9,3koa baitzen, jaitsiera nabaria gertatu da, ehuneko hori % 6,8an kokatuz 2015ean; beste bi lurraldetan, aldiz, jaitsiera hori ez da hain gogorra izan.

Biztanle atzerritarren bilakaera Lurralde Historikoaren arabera 2002-2015






EIN: Espainian bizi diren biztanleak 2015

Bereziki interesgarria da azpimarratze gazteek presentzia adierazgarria dutela EAEko biztanle atzerriengan. Atzerritar nazionalitatea zuten eta 2015ean EAEn bizi ziren pertsonen % 80k 44 urtetik behera zuten; ehuneko hori espainiar nazionalitatea duten pertsonen ehunekoa baino 30 puntu altuagoa da. Kolektibo horrek euskal gizartearentzako eta ekonomiarako duen garrantzi estrategikoa ulertzeko funtsezko faktorea da hori, jaiotze-tasa txikiko eta euskal biztanleen zahartze testuingurua kontuan hartuta.

Biztanle atzerritarak vs espainiar nazionalitateko biztanleak adinaren arabera, EAEn 2015



EIN: Espainian bizi diren biztanleak 2015

1.2 Iatorri atzerritarreko biztanleriaren Eskualde-mapa EAEn 2015

Biztanle atzerritarrek EAEn duten pisuaren ikerketaren lurralde-ikuspegian sakontzeko asmoarekin, atzerritar jatorriko biztanleei buruz Ikuspegik eskaintzen duen informazioaz baliatu gaitzke.

Ildo horretatik, azpimarragarria da atzerritar jatorriko biztanleek Arabako Lautada eskualdean duten presentzia (% 11,4), non Gasteiz hiriburua kokatzen baita; ehuneko horrek gainerako arabar eskualdeetakoak bikoizten ditu, esaterako, Arabako Mendialdekoa (% 5,3) eta Kantaurialdekoa (% 5,8).

Bizkaian eta Gipuzkoan atzerritar jatorriko biztanleen pisu erlatiboa homogeneouskoa da eskualde mailan.

Edozelan ere, aipagarria da Bilbo Handiko eskualdean atzerritar jatorriko 70.000 pertsona inguru biltzen direla, hau da, biztanle guztien % 7,9; Donostialdean, aldiz, kolektibo horren pisu erlatiboa altuagoa da (% 8,5).

EAEko eskualdeak eta haien atzerritar jatorriko biztanleen ehunekoak. 2015 urtea

	Guztira	Atzerritar jatorria	Atzerritar jatorrikoen %
Araba	323.648	34.037	10,5
Arabako Ibarak	5.674	473	8,3
Arabako Lautada	260.542	29.643	11,4
Arabako Mendialdea	2.982	158	5,3
Arabako Errioxa	11.293	1.194	10,6
Gorbeialdea	8.682	577	6,6
Arabako Kantaurialdea	34.475	1.992	5,8
Bizkaia	1.148.775	89.253	7,8
Arratia-Nerbioi	23.849	1.463	6,1
Bilbo Handia	865.398	68.098	7,9
Durangaldea	98.278	7.416	7,5
Enkarterriak	32.240	2.208	6,8
Gernika-Bermeo	46.224	3.862	8,4
Markina-Ondarroa	26.073	2.198	8,4
Plentzia-Mungia	56.713	4.008	7,1
Gipuzkoa	716.834	60.907	8,5
Bidasoa Beherea	78.426	8.526	10,9
Debarrena	55.752	4.844	8,7
Debagoiena	62.720	4.419	7,0
Donostialdea	327.992	27.898	8,5
Goierni	68.234	5.866	8,6
Tolosaldea	48.797	3.631	7,4
Urola Kosta	74.913	5.723	7,6
EAE	2.189.257	184.197	8,4

Iturria: EIN. Egilea: Ikuspegi

2. Biztanleria atzerritarra eta etxebizitza


2.1. Etxebizitzaren edukitza-erregimena biztanle atzerritarren artean

Alokairua da atzerritar jatorriko biztanleen artean etxebizitza eskuratzeko nagusitzen den erregimena. 2014an, biztanle horien % 58,9 alokairuko etxebizitzetan bizi ziren; ehuneko hori 2010ean erregistratukoaren antzekoa da, orduan % 60,2 baitzen.

Aldiz, etxebizitza eskuratzeko jabetza-erregimena oso murrizta da atzerritar jatorriko biztanleen artean eta, gainera, izugarri murriztu da atzeraldiko urteetan. 2014an, atzerritar jatorriko biztanleen % 19,9 jabetzako etxebizitzetan bizi ziren; ehuneko hori 2010ean erdietsitakoa baino murriztagoa da, orduan % 25,8 baitzen.

Jabetza-erregimenean bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 19,9 horren % 7,2k etxebizitza guztiz ordainduta daukate; gainerako % 12,7k, aldiz, hipoteka ordaintzen ari dira.

Atzerritar jatorriko biztanleak etxebizitza edukitzeko erregimenaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2014 (% horizontalak)



Iturria: EABI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politikak Saila. EOE

Eskuratzeko erregimenaren analisiak biztanle atzerritar horien jatorrizko eremuaren arabera bi salbuespen adierazten ditu alokairuaren nagusitasun-eredu orokor horren aurrean: jatorria EBeko herrietan duten biztanleak eta txinatar jatorriko biztanleak.


Atzerritar jatorriko biztanleak etxebizitza edukitzeko erregimenaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2014 (% horizontalak)

	Doakoa, lagatakoa	Jabetza erabat ordaindua	Ordainpeko erregimene n %	Ordainpeko erregimene n %			
				Jabetza partzialki ordaindua	Alokairua	Partekatua	Infraetxea
EBko mendebaldea	6,0	25,3	68,7	24,2	33,4	11,1	0,0
Errumania eta EBko ekialdeko beste batzuk	4,9	4,0	89,9	11,4	70,2	8,3	1,2
Magreb	6,8	2,5	90,7	6,4	67,0	17,3	0,0
Argentina, Txile, Uruguai	5,7	11,1	83,2	22,9	55,0	5,3	0,0
Kolombia, Ekuador, Peru	6,3	4,4	89,3	14,9	65,5	8,9	0,0
Bolivia	7,2	2,3	90,5	6,1	70,8	13,7	0,0
Paragua	19,3	4,3	76,4	4,7	58,5	13,2	0,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	2,9	12,5	84,7	13,5	59,7	11,5	0,0
Latinoamerikako gainerakoak	19,5	10,9	69,5	14,0	44,7	10,9	0,0
Txina	16,2	4,6	79,1	33,6	34,0	11,5	0,0
Senegal	9,5	4	90,1	5,3	55,6	29,1	0,0
Afrikako gainerakoak	4,0	1,6	94,5	2,5	61,9	30,1	0,0
Munduko gainerakoak	8,0	5,6	86,4	11,1	56,7	18,6	0,0
Guztira	7,6	7,2	85,1	12,7	58,9	13,5	0,1

Iturria: EABI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politikak Saila. EOE

Adierazi bezala, kolektibo horren % 85ek (gainerakoak etxebizitza erabat ordaindua duten jabeak dira) haien etxebizitza ordaintzeko ordainketa egin behar dute hilero. Atzerritar jatorria duten biztanleek etxebizitza ordaintzeko egiten duten hileko batez besteko gastua 518 € da, hau da, % 15,5 gutxiago 2010 urtearekin alderatuz. Jabetza partzialki ordaindua duten etxebizitzetan bizi diren pertsonen (613 €), alokairu-erregimenean bizi direnen (551 €) baino hileko ordainketa altuagoa hartu behar dute bere gain.

Atzerritar jatorriko biztanleak ordainpeko edukitze-erregimenean: hileko batez besteko gastua, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta jatorrizko eremu geografikoaren arabera 2010 eta 2014 urteak




Iturria: EABI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politikak Saila. EOE

Etxebizitza eskuratzera bideratutako gastu horren garrantzia izugarria da kolektibo horren batez besteko diru-sarrerekin lotuz gero. Horrela, 2014an atzerritar jatorriko biztanleen hileko batez besteko diru-sarrera 795 €koa zen *per cápita* (-% 7,8 2010arekiko). Testuinguru horretan, atzerritar jatorriko hiru pertsonetatik bat (% 35,1) haien oinarritzko premia ekonomikoei (etxebizitza, besteak beste) aurre egiteko zailtasunak adierazten dituzten familietan bizi da; proportzio hori igo da 2010 urtearekiko (orduan % 29,7 baitzen).

2.2. Etxebizitzaren baldintzak, instalazioak eta ekipamendua eta jatorri atzerritarreko biztanleen gogobetetasun-maila

Aipatu zailtasun ekonomikoen haraindian, ikerketak ez du etxebizitzaren ez eta horien instalazioen eta ekipamenduen baldintzen egoera eskasik erakusten ere kolektibo horrengan. Atzerritar jatorriko biztanleen ehuneko adierazgarriak soilik (guztien % 25,3) uste du etxebizitzaren tamaina urria dela; eta, neurri txikiagoan (% 10,7), atzerritar jatorriko biztanle batzuk isolamendu, pitzadurak, iragazpenak, itoginak eta hezetasun arazoak identifikatu dituzte.


Etxebizitza-arazoak dituzten familia-unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak 2010 eta 2014 urteak (% , arazoak dituztela dioten unitateetan)



Iturria: EABI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politikak Saila. EOE

Azpimarragarria da biztanle horien asebetetze-maila haien etxebizitzaren baldintzekiko: atzerritar jatorriko 10 pertsonetatik seik uste dute baldintza horiek egokiak direla eta hamarretatik hiruk uste dute hobetu daitezkeela (onargarritzat jotzen badituzte ere).

Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzen arabera. 2010 eta 2014 urteak (% horizontalak)



Iturria: EABI 2010 eta 2014. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politikak Saila. EOE

3. Biztanleria atzerritarraren etxebizitza premiak

3.1. Biztanleria atzerritarraren etxebizitza premiak eta eskaria EAEn

Etxebide-k ematen duen informazioari esker, lehenengo etxebizitza eskuratzeko premia duten euskal biztanleen etxebizitza babestuaren eskariaren zati handiari buruzko argazki xehea dago eskura. 2013tik geroztik, argazki hori are zehatzagoa da izena emateko eskakizunetan eta prozeduran egindako aldaketei esker, alokairua edo erosketa aukeratu behar baita, aukera bat bestearen baztertzaila izanik.

Etxebide-n izena emateko sistemaren aldaketaren eragina

Etxebizitzaren eskariaren joerak aztertzerakoan, kontuan hartu behar da beherago aurkezten den etxebizitza babestuaren eskariaren serie historikoaren azterketan nabarmentzen dela 2013 eta 2014 urteren bitartean Etxebideren funtzionamendurako arauen aldaketa, bajak kudeatzeari dagokionez.

EEB-ak² 2015ean argitaratutako txostenean sakonki aztertu bezala, ekitaldi bakarrean 48.000 baja kudeatu ziren Erregistroan, neurri handi batean, izen-emateak ez zirelako berritu (lau baja-kasuetatik hiru arrazoi horrek azaltzen ditu), 2013an³ indarrean hasitako Etxebide arautzeko Dekretu berria zela eta.

Etxebide-n izena emanda dauden eskaeren titularrak diren pertsonen bilakaera, nazionalitatearen eta izena eman duten pertsona guztiekiko pisu erlatiboaren arabera 2005-2015*

	Atzerriko nazionalitatea	Espainiar nazionalitatea	GUZTIRA	%
2005	6.425	109.624	116.049	% 5,5
2006	7.387	97.908	105.295	% 7,0
2007	8.981	102.657	111.638	% 8,0
2008	11.374	102.850	114.224	% 10,0
2009	13.895	101.824	115.719	% 12,0
2010	20.176	90.298	110.474	% 18,3
2011	24.548	84.537	109.085	% 22,5
2012	26.133	81.982	108.115	% 24,2
2013	25.640	79.871	105.511	% 24,3
2014	18.096	48.531	66.629	% 27,2
2015	18.111	47.678	65.792	% 27,5

* 2014 eta 2015 urteetan guztizkoek ez dute datuketa zuzena adierazten 2 eta 3 erregistro direla eta, hurrenez hurren, kasu horietan ez baitago eskuragarri nazionalitateari buruzko informazioa.

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

2


http://www.garraioak.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_bajas15/eu_ovv_ana/adjuntos/Bajas%20en%20Etxebide%202014 eu.pdf

³ AGINDUAK, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebide-n izena emateko prozedura eta etxebizitza babestuak aukeratzeko eta esleitzeko prozedurak arautzeaz gain, inskripzioan baja emateko arrazoiak eta ondorioak ezartzen ditu. Kontuan hartu behar da, urtarilaren 2an indarrean sartu zela etxebizitza-eskatzailen erregistroa eta zuzkidura-bizitokiak-Etxebide arautzen dituen araua. Arau horrek inskripzioaren 2 urteko baliozkotasun epea ezarri zuen; hortaz, inskripzioa bi urtean behin berritzaera behartzen du, eta alderdi horrek eragina izan du hainbat espedienteetan; horren ondorioz, 2014an baja kopurua modu adierazgarrian igo zen.

2014an emandako BPEren eskariaren jaitsiera adierazgarria testuinguru horretan ulertu behar da, bai atzerritar bai espainiar nazionalitatea duten biztanleen kasuetan. 2013 eta 2014 urteren bitarteko bilakaerak erakusten du murrizketa hori handiagoa izan dela espainiar nazionalitatea duten pertsonen artean (-% 39,2) atzerritar nazionalitatea dutenen artean baino (-% 29,4).

2014 eta 2015 urteren bitartean posiblea da jada bilakaera-analisia egitea oinarri homogeenetan funtsatuz. 2015ean Etxebide-n izena eman zuten atzerritar nazionalitateko pertsona kopuru osoa 18.111 izan zen, hau da, ekitaldi horretan zehar izena eman zuten pertsona guztien % 27,5; kopuru hori 2014koaren antzekoa zen (18.096 pertsona).


Etxebide-n izena emanda dauden eskaeren titularrak diren pertsonen urteko aldaketa-tasak, nazionalitatearen arabera, 2005-2015.



Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Osagarri gisa, etxebizitza babestuko 14.463 eskaera-espeditate erregistratu ziren 2015ean, non gutxienez pertsona titularretatik batek atzerritar nazionalitatea baitzuen; kopuru hori 2014an ikusitakoaren oso antzekoa da; orduan, kopurua 14.343 pertsonetakoa izan zen.


Atzerritar titularren etxebizitza babestuko eskaera-espeditateen bilakaera Etxebide-n, 2005-2015



Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Azken urteetako joerarekin bat etorritik, titular gisa atzerritar nazionalitatea duten pertsonak dituzten espeditateekin lotutako etxebizitza babestuaren eskarian erabatekoa da alokairua aukeratu dutenen kopurua 2015ean (eskaera-espeditate guztien % 97,2).

Etxebide-n izena emanda dauden biztanleek eskatutako etxebizitzaren edukitze-erregimena, nazionalitatearen arabera, 2015



* Eskatutako etxebizitza gisa zera ulertzen da: Etxebide-n erregistratutako espediente kopurua, non atzerritar nazionalitateko titularren bat baitago.

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Edozelan ere, azpimarragarria da alokairuaren aldeko aukera hori ez dela jada atzerritar nazionalitateko biztanleen ezaugarri bereizgarririk, baizik eta baita espainiar nazionalitatea duten biztanleengan ere sumatzen ari da; kasu horretan, eskaeren % 71 alokairuaren alde agertu dira, eta hori aldaketa historikoa da.

Eskatutako etxebizitzaren edukitze-erregimenaren bilakaera nazionalitatearen arabera, 2005-2013

	Atzerritar nazionalitatea			Espainiar nazionalitatea		
	Erosketa soilik	Alokairua soilik	Berdin dio	Erosketa soilik	Alokairua soilik	Berdin dio
2005	15,3	44,0	40,7	49,4	17,8	32,8
2006	11,0	50,8	38,2	44,4	21,4	34,2
2007	9,5	51,0	39,9	43,9	20,5	35,9
2008	9,4	49,1	41,6	43,2	20,0	36,8
2009	7,9	51,8	40,3	41,7	19,6	38,7
2010	4,1	67,7	28,1	35,2	23,4	41,4
2011	3,0	76,1	20,9	32,0	27,0	41,0
2012	2,1	82,1	15,8	28,3	31,7	40,1
2013	10,0	90,1	--	51,6	48,4	--
2014	% 4,3	% 95,7	--	% 34,8	% 65,2	--
2015	% 2,9	% 97,1	--	% 28,2	% 71,8	--


* 2013tik aurrera, eskuratzeko erregimena erosketari edo alokairuari dagokio.

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Azkenik, Etxebide-n izena emanda dauden atzerritar nazionalitateko biztanleen ezaugarritzeari dagokionez, pertsona ezkonduen pisua handiagoa da biztanle atzerritarren artean (% 46,8), espainiar nazionalitateko pertsonen artean baino (% 18,7).

Ildo horretan, banako eskaeren proportzioa txikiagoa da biztanle atzerritarren artean (% 44,2) espainiar nazionalitateko biztanleen artean hautemandakoa baino (% 69,1).

Etxebizitza babestua eskatzen duten pertsonen ezaugarri soziodemografiko nagusiak: atzerritar nazionalitatea vs espainiar nazionalitatea, 2015



Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Diru-sarrerei dagokienez, atzerritar nazionalitatea duten pertsonen errenta pertsonala murriztagoa da (11.238 €) espainiar nazionalitatea duten pertsonena baino (15.408 €).

Halaber, diru-sarrerarik ez duten pertsona atzerritarren pisu erlatiboak hirukoizten du (% 35,4) espainiar nazionalitatea duten pertsonena (% 13,0).

Etxebide-n izena emanda dauden biztanle atzerritarren ezaugarri nagusien bilakaera, 2005-2015

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	
											Esp.	Extr.
SEXUA												
▪ Gizona	48,6	47,9	47,4	47,2	47,7	48,1	49,3	50,7	50,1	50,5	47,0	50,9
▪ Emakumea	51,4	52,1	52,6	52,8	52,3	51,9	50,7	49,3	49,9	49,5	53,0	49,1
ADINA												
▪ 18-24 urte	0,9	1,2	1,9	3,2	4,8	5,8	7,8	3,1	3,9	3,5	2,6	3,2
▪ 25-29 urte	7,8	8,9	10,5	12,6	15,3	16,6	18,7	13,8	14,3	12,9	14,1	12,6
▪ 30-34 urte	20,2	20,5	21,8	22,7	22,8	23,6	23,9	22,8	22,6	22,5	19,0	21,2
▪ 35-39 urte	23,7	24,3	23,8	22,9	21,9	21,2	19,6	22,6	23,0	23,3	17,6	23,3
▪ 40-49 urte	33,4	31,5	29,2	26,9	24,7	23,5	21,5	26,2	25,5	26,3	25,0	28,0
▪ 50-59 urte	10,9	10,6	10,0	9,2	8,2	7,3	6,6	8,8	8,2	8,9	13,8	8,8
▪ 60 urte edo gehiago	2,8	2,8	2,5	2,3	1,9	1,8	1,6	2,4	2,2	2,5	7,9	2,8
EGOERA ZIBILA												
▪ Ezkongabea	34,5	34,4	35,3	36,5	37,5	38,7	40,6	42,3	41,7	40,6	64,5	42,1
▪ Ezkondua	58,7	58,4	57,4	56,3	55,4	52,2	50,2	49,3	48,8	48,4	18,7	46,8
▪ Alarguna	1,0	0,9	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,1	1,2	2,0	1,2
▪ Banatua	2,9	2,9	2,4	2,1	1,9	1,6	1,5	1,6	1,7	1,5	3,3	1,4
▪ Dibortziatua	3,0	3,3	4,0	4,1	4,2	4,8	5,1	5,8	6,6	7,3	11,1	7,9
▪ Sailkatu gabe						1,6	1,5			1,0	0,5	0,6
DIRU-SARRERA PERTSONALEN BANAKETA												
▪ Diru-sarrerarik gabe	36,2	35,9	33,6	26,9	21,8	20,4	34,5	36,8	52,8	50,5	13,0	35,4
▪ 9.000 €-ra arte	32,8	29,6	29,4	27,5	32,0	32,6	23,3	27,0	24,1	20,2	21,4	24,4
▪ 9.001-25.000 €	30,3	33,2	35,9	43,9	44,5	44,0	39,7	34,5	21,3	27,2	52,9	37,6
▪ 25.001 – 39.000 €	0,7	1,1	1,1	1,6	1,6	1,4	2,2	1,6	1,6	2,1	11,1	2,4
▪ 39.001 – 50.000 €	0,0	0,1	0,0	0,1	0,4	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	1,4	0,2
▪ > 50.000 €	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,5	0,2	0,0	0,4	0,0	0,2	0,0
Batez besteko diru-sarreraren pertsonalak*	9.434	10.310	10.516	11.416	11.799	10.849	11.911	10.674	10.066	11.322	15.408	11.238
FAMILIAREN DIRU-SARREREN BANAKETA												
▪ Diru-sarrerarik gabe	3,8	7,5	7,7	3,1	6,9	5,9	15,6	12,4	28,2	36,5	9,1	20,7
▪ 9.000 €-ra arte	36,3	31,3	27,9	24,3	24,7	25,9	21,5	21,8	27,6	19,1	17,6	21,1
▪ 9.001-25.000 €	55,3	55,4	57,6	62,8	55,8	55,6	53,7	55,1	36,2	38,7	55,2	51,9
▪ 25.001 – 39.000 €	4,4	5,5	6,4	8,9	11,1	9,0	7,6	8,8	6,7	5,0	14,6	5,5
▪ 39.001 – 50.000 €	0,2	0,3	0,3	0,7	1,3	1,3	1,1	1,4	1,1	0,5	2,7	0,6
▪ > 50.000 €	0,0	0,1	0,0	0,1	0,2	2,3	0,5	0,5	0,3	0,2	0,7	0,2
Familiaren batez besteko diru-sarrerak*	11.873	12.684	13.364	14.699	16.360	14.373	14.749	13.176	12.163	13.766	17.292	13.572
ESPEDIENTE MOTA												
▪ Banako eskaera	26,8	27,9	28,8	28,4	30,0	23,9	27,2	39,3	41,5	42,2	69,1	44,2
▪ Familia-unitatea	73,2	72,1	71,2	71,6	70,0	76,1	72,8	60,7	58,5	57,8	30,9	55,8
SEME-ALABA KOPURUA FAMILIOIA-UNITATEETAN												
▪ Seme-alabarik gabe	27,1	24,7	23,9	25,1	25,9	21,9	21,3	22,2	18,4	50,7	74,1	51,5
▪ Seme-alaba bat	33,9	34,3	34,9	35,2	35,1	36,2	37,0	37,2	38,1	19,2	12,1	18,1
▪ 2 seme-alaba	23,9	25,0	25,2	23,9	23,5	25,4	25,5	25,0	26,0	16,5	9,3	16,5
▪ 3 seme-alaba edo gehiago	15,2	16,1	16,0	15,8	15,5	16,5	16,2	15,7	17,5	6,4	2,2	14,0

* Batez besteko diru-sarrerak kalkulatu dira diru-sarrerarik ez duten biztanleak kontuan hartu gabe.

Iturria: Etxebide. Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak.

4. Biztanleria atzerritarren BPE eskuratzea eta etxebizitza laguntzak

4.1. BPEren esleipenaren eragina biztanle atzerritarren artean 2015ean

2015ean atzerritar nazionalitateko pertsonen 795 erosketa edo alokairu-kontratuei eman zitzairen oniritzia, hau da, urte horretako kontratu guztien % 13,3. Azken urteetan, atzerritar nazionalitateko biztanleei emandako esleipenen pisua gora doa; hortaz, 2012an % 9,3 bazen ere, 2015ean % 13,3 erdietsi du.

Bereziki azpimarragarria da pertsona atzerritar esleipendunen proportzioa askoz ere txikiagoa da Etxebide-n azken urteetan erregistratutako eskarian duen pisu erlatiboarekiko. Horrela, 2015ean Etxebide-n erregistratutako pertsona atzerritarren pisu erlatiboak (% 27) pertsona esleipendunen a bikoitzen du (% 13,3).

Etxebizitza babestuko EAEko pertsona esleipendunen bilakaera eta esleipendun guztiekiko pisu erlatiboa, nazionalitatearen arabera, 2006-2015

	Atzerritar nazionalitatea	Espainiar nazionalitatea	GUZTIRA	%
2006	166	5.176	5.342	
2007	371	6.778	7.149	% 5,2
2008	299	6.685	6.984	% 4,3
2009	495	7.654	8.149	% 6,1
2010	619	6.307	6.926	% 8,9
2011	527	7.178	7.705	% 6,8
2012	687	6.691	7.378	% 9,3
2013	613	5.725	6.338	% 9,7
2014	738	6.637	7.375	% 10,0
2015	795	5.173	5.968	% 13,3

Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Ordezkaritzek bisa jarritako kontratuak.

Osagarri gisa, aipagarria da biztanle atzerritarrek Bizigune programan duten garrantzi erlatiboa. 2015eko datuen arabera, biztanle horien pisu erlatiboa Programaren egungo onuradunen % 24,8 zen.

Erregistratutako eskariaren analisisan sumatutakoarekin bat etorritz, atzerritar nazionalitatea duten pertsonekin lotutako kontratuen pisu erlatiboa askoz ere adierazgarriagoa da alokairuaren kasuan (% 22,8) erosketaren kasuan baino (% 3).

Etxebizitza babestuko EAEko pertsona esleipendunen proportzioa, edukitze-erregimenaren eta nazionalitatearen arabera, 2015




Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitza Ordezkaritzek bisa jarritako kontratuak.

Horrela, pertsona atzerritar gehienak alokairu-erregimeneko etxebizitza baten esleipendunak izan dira 2015ean (% 89,4); % 10,6, aldiz, erosketa-erregimeneko etxebizitzaren esleipendunak izan dira. Espainiar nazionalitateko pertsonen kasuan, ostera, erosketa-erregimeneko etxebizitzaren pertsona esleipendunen proportzioa altuagoa da oraindik ere (% 53,4) alokairuaren kasuan sumatutakoa baino (% 46,6).

Biztanle atzerritarren kasuan, BPE alokairu-erregimenean eskuratzearen pisu espezifikoaren igoera etengabekoa izan da 2007tik geroztik, 2013tik aurrera intentsitate handiagoa hartzen duela badirudi ere.


etxebizitza babestua eskuratzeko erregimenaren bilakaera nazionalitatearen arabera, 2006-2015



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak. Etxebizitza Ordezkaritzek bisa jarritako kontratuak.

Biztanle espainiarren kasuan, berriz, azken bi urtetan soikik nabaritu da alokairu-erregimenaren nolabaiteko igoera, baina erosketa-erregimena nagusia izaten darraio 2015ean, etxebizitza babestua eskuratzeko orduan.

Biztanle atzerritar esleipendunen ehunekoaren bilakaera EAEn lurralde historikoaren arabera, 2006-2015



Iturria: Etxebizitza Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Ordezkaritzek bisa jarritako kontratuak.

Lurraldearen araberako analisiak erakutsi du biztanle atzerritarrei emandako esleipenen pisu erlatiboa handiagoa izan dela Araban historikoki, lurralde horretan erregistratutako eskari handiagoarekin bat etorritik (eta baita Araban kokatutako eskariaren pisu erlatiboa handiagoa izan delako ere aldi historiko zabalean zehar). Edozelan ere, proportzio horrek ez du igoera esanguratsurik eduki azken hiru urtetan Arabako lurraldean.

Bizkaian eta Gipuzkoan, pertsona atzerritar esleipendunen pisu erlatiboa ez da modu adierazgarrian igo azken urteetan eta Araban ikusitakoa baino askoz ere murriztagoa izaten darraio.

4.2. Etxebizitzan egindako gastuak biztanle atzerritarrengan duen inpaktuaren analisia versus konparatua eta diru-sarrerak. 2008-2012

Biztanle atzerritarrekin zuzenean lotutako diru-sarrerak eta gastu publikoek dakarten inpaktuari eta balantze ekonomikoari buruzko ikerketa xehea egin berri du Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi).

Analisi hori aurrekontu-alderdietara mugatzen da (diru-sarrera eta gastu publikoak; hortaz, biztanle horiek euskal ekonomian eragiten dituzten beste inpaktu positibo batzuk ez ditu kontuan hartzen, euskal biztanleen gaztetzeari eta etorkizuneko ongizate-ereduaren iraunkortasunari egiten dioten ekarpenarekin eta kontsumo pribatuan eragiten duten inpaktu positiboarekin lotutakoak.

Oro har, aipagarria da, ondorio gisa, immigrazioaren inpaktu ekonomikoaren azkeneko saldoa positiboa dela diru-kutxa publikoetarako. Hau da, kolektibo horrek sortzen dituen diru-sarrera publikoek kolektibo horrengan egindako gastua gainditzen dute. 2008rako saldo positiboa 71 milioi eurotik gora kokatu zen, eta 2012rako 38 milioi eurotan.

2012ri dagokionez, biztanle atzerritarrekin lotutako gastu osoak gora egin du eta 593 milioi eurotan kokatu da. Kontu-sail garrantzitsuena prestazio ekonomikoetara eta gizarte zerbitzuetara bideratu dena bada ere (236 milioi euro, biztanle atzerritarren gastu osoaren ia % 40), azpimarragarria da 2012an, kolektibo horri dagokionez, etxebizitzan⁴ egindako gastuaren garrantzia.

2008an atzerritar nazionalitateko biztanleek Eusko Jaurlaritzak etxebizitza kontuan egindako gastu osoaren % 4,3 bildu zuten. 2012an ehuneko hori % 13,5ra igo zen, hau da, 9,2 puntu gehitu zituen lau urtetako epean. Horrela, 2012an, alokairu programetan biztanle atzerritarrekin lotutako gastua guztizkoaren % 23,2 izan zen. Jabetzaren kasuan, kolektibo horri bideratutako gastuaren garrantzi erlatiboa askoz ere txikiagoa izan zen, 2012an jabetzako etxebizitzetan egindako gastuaren % 3,9 izanik.

EAEn etxebizitza kotuan atzerritar biztanleei egotzitako gastuaren estimazioa eta biztanleria osoa. 2008-2012

	2008			2012			2008-2012		
	Atzerritarra	Guztira	%	Atzerritarra	Guztira	%	Atzerritarra	Guztira	%
Alokairu-erregimena	8.273.593	58.677.964	14,1	28.980.353	124.915.313	23,2	20.706.760	66.237.349	9,1
Jabetza-erregimena	9.744.851	360.920.424	2,7	3.578.519	91.756.901	3,9	-6.166.332	269.163.523	1,2
Etxebizitza Saila	4.335.094	100.816.133	4,3	6.627.714	73.641.271	9,0	2.292.621	-27.174.862	4,7
Guztira	22.353.538	520.414.521	4,3	39.186.586	290.313.485	13,5	16.833.048	230.101.036	9,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, Enplegu eta Gizarte Politikako Saila. Norberak egindakoa

Gastu-politika horiek ordaintzeko ekarpena zerga nagusietatik datozen diru-sarreretan oinarritzen da, besteak beste, gizarte-ekarpenak, PFEZ eta BEZ. Saldo osoa (diru-sarrerak – gastuak) biztanle atzerritarrentzako positiboa da. Horrela, EAEn atzerritar nazionalitateko biztanleek ekarritako diru-sarrerak 188 milioi euro gora egin zuten 2008-2010 urteren bitartean. Gizarte-kotizazioak dira diru-sarrera garrantzitsuenak -277 milioi euro-, PFEZ-etik datozen diru-sarrerak nabarmenki igotzen dira eta 201 milioi eurotan kokatzen dira.

Edozelan ere, txostenaren helburua kontuan hartuta, interesgarria da etxebizitzarekin zuzenean lotutako diru-sarrerei buruzko erreferentzia espezifikoak egitea⁵. 2012an 9 milioi euroko diru-sarrera jaso zen kontzeptu horretan, hau da, 2 milioi euro gutxiago lau urtetako epean.

⁴Etxebizitza babestu publikoan Eusko Jaurlaritzak zuzenean sustatutako edo kudeatutako inbertsioetan oinarritzen da estimazioa; zehazki, Alokabideren bitartez (alokairu-erregimena), Visasaren bitartez (jabetza-erregimena) eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailako inbertsio-atal espezifikoaren bitartez. Beraz, enpresek eta kooperatiba pribatuek sustatutako eta kudeatutako etxebizitza babestu publikoaren promozio guztiak analisi horretatik kanpo geratu dira.

⁵Diru-sarrera horiek babes ofizialeko etxebizitzaren komertzializazioarekin lotzen dira nagusiki. halaber, Eusko Jaurlaritzak, Alokabideren bitartez (alokairuko etxebizitza publikoaren kasuan) eta Visasaren bitartez (jabetzako etxebizitza publikoaren kasuan), berak eraikitako eta kudeatutako etxebizitzaren alokairutik eta salmentatik diru-sarrerak jasotzen ditu.



Babes Ofizialeko Etxebizitza kontuan atzerritar nazionalitateko biztanleei egotzitako diru-sarrereren estimazioa

	2008			2012			2008-2012	
	Atzerritarra	Guztira	%	Atzerritarra	Guztira	%	Atzerritarra	Guztira
Alokairu diru-sarrera	2.049.824	14.537.756	14,1	5.583.476	24.066.709	23,2	3.533.653	9.528.953
Jabetza diru-sarrera	9.035.896	334.662.809	2,7	3.471.432	89.011.073	3,9	-5.564.464	-245.651.736
Guztira	11.085.719	349.200.565	3,2	9.054.908	113.077.782	8,0	-2.030.811	-236.122.783

Iturria: Biztanleen udal-errola. EIN. Norberak egindakoa

5. Ondorioak

Aurreko hamarkadaren hasieran 33.000 atzerritar zenbatu ziren EAEn, ozta-ozta. Hamarkada horretan zehar, aldiz, kolektibo horrek goranzko joera esperimentatu zuen haren maila gorena iritsi arte: 143.935 pertsona 2011n, hau da, EAeko biztanleen % 6,6.

2011-2015 urteren bitartean, atzeraldiaren inpaktuaren eraginez, kolektibo horrek galera izugarria jasan zuen pertsona kopuruaren aldetik; hortaz, 2015ean atzerritar nazionalitateko 107.637 pertsona erregistratu ziren EAEn, hau da, biztanle guztien % 5. Jatorrizko herrietara itzultze-prozesuek eta baita espainiar nazionalitatearen eskuratze-prozesuek azaltzen dute kolektibo horrek 2011-2015 urteren bitartean jasandako pertsona galera.

Atzerritar jatorriko hiru pertsonetatik bat haien premiei erantzuteko zailtasunak dituzten familietan bizi dira. Etxebizitzaren eremu espezifikoan, kolektibo horren % 85ek etxebizitza ordaintzeko ordainketa egin behar du hilero (alokairuak % 58,9 delarik), atzerritar jatorriko biztanleen hileko batez besteko etxebizitzarako gastua 518 € izanik.

EAEn biztanle atzerritarren kopurua handituz doan heinean, kolektibo horren etxebizitza-eskariaren garrantzi erlatiboa progresiboki gehitu da azken urteetan zehar. Etxebide-ren bitartez etxebizitza babestua eskatzen duten atzerritar nazionalitateko pertsona kopuruak gora egin du atzeraldi urteetan zehar, 2015ean izena emandako pertsona guztien % 27,4 izanik, 2010ean, aldiz, kolektibo horrek % 18,3 biltzen zuen. Kolektibo horren etxebizitza babestuaren eskaria ia osoak (% 97) alokairua aukeratzen du.

Aurrekontu-zailtasunak badaude ere, etxebizitza politika kolektibo horren premiei erantzuten saiatu da, euskal biztanleenei bezala. 2015ean 795 pertsona etxebizitza babestuaren esleipendunak izan ziren EAEn, hau da, pertsona esleipendun guztien % 13,3. Ehuneko hori Etxebide-n izena emandako kolektibo horren eskariaren pisu erlatiboarekiko 14 puntuz azpitik kokatzen da; hortaz, kolektibo hori etxebizitza babestua eskuratzen ari da etxebizitza babestuaren eskari horretan duen ordezkartzarekiko tasa txikiagoan.

Ikuspegik berriki egindako txosten batek agerian uzten du atzerritar biztanleek euskal AAPPen aurrekontuetan eragiten duten inpaktu positiboa, krisiak kolektibo horrengan eragin berezia izan duen arren.

2015ean EAEn bizi ziren atzerritar nazionalitateko biztanleen % 80k 44 urtetik behera zuten, gainerako biztanleek adierazten duten ehuneko baina 30 puntu gehiago. Beraz, EAeko biztanleen gaztetzeari egiten dioten ekarpena funtsezko faktorea da datozen hamarkadetan eredu ekonomiko eta soziala iraunkorra izan dadin kolektibo horrek duen garrantzi estrategikoa ulertzeko.